



gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

PROGRAMA
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO


Jar zaituz harremanetan Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.



Arkitekturak eta haien esanahiak

Erakusketa-proiektuak, zinema garaikidea eta eszena izango dira zentroaren kultura-proposamenen protagonistak hilabete hauetan. Hiruhilekoaren programazioa Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdiaren lortzarekin hasiko da, narratiba garaikideko erreferenteekin topaketa eta jarduera literarioak eginez.

Arte bisualen esparruan, proiektu berrietatik hiru arkitekturaren eta haren esanahien inguruan dabilza, begirada desberdinetatik. Esate baterako, Isidoro Valcárcel Medinaren *Arkitektura goiztiarrak* proiektua, maiatzetik BAT Espazioan egongo dena. Hirigintzako eta eraikuntzako hogeita hamar proiektu hauetan, Arte Plastikoen 2007ko Sari Nazionala eskuratu eta arte kontzeptualaren estatuko erreferente denak galderak planteatzen ditu arkitekturak bestelako bizimoduak edo espazioen bestelako erabilerak proposatzeko duen gaitasunaz.

Era berean, espazioaren arkitektura eta bere esanahia da Antonio Fernández Alvira artistak sortu eta Azkuna Zentroak zentroko terrazarako ekoiztiko proiektuaren abiapuntua. Ekainetik aurrera egongo da ikusgai. Eskultura- eta instalazio-formulazioarekin planteatuta, lanak edukiontzia eta jariakinaren arteko erlazioa aztertzen du, Alhóndigaren iragana ardo-biltegi gisa eta oraina kultura-ontzi iragazkor gisa.

Grimanesa Amorós artistaren *Scientiaren* kasuan, Ataria izango da maiatzaren amaieratik aktibatuko den argi-instalazio handi honen gunea. Site espezifiko hau argi-eskultura bat da, eta erdiko espazio honetara sartzen diren pertsonak inplikatu ditu, inguruko arkitekturarekin

elkarrizketan, autoerreflexio eta errealizazio pertsonaleko uneak sustatuz, eta, aldi berean, argiaren bidez konexioa sortuz.

Zinematikaren ziklo berria emakumeek zuzendutako lanen aukeraketa bat da. Zinema garaikidearen aldaketaren ahots bihurtzen ari dira, epaimahaiek eta ikusleek jaialdi garrantzitsuetan aintzatetsita. *Hammamurgia* Societat Doctor Alonsoren azken lana eta Judy + JD Zazie eta Al Carpenter + Orbain Unit taldeen musika esperimentaleko kontzertuak nabarmentzen dira hiruhileko honetan. Bitartean, ikusgai izango da Erakusketa Aretoa zabalik den *Ahots bat Erausorentzat*. *Trans garai baterako epilogo*a proiektua.

Hori guztia, hazten jarraitzen duen komunitate artistiko batekin batera, eta, aurten,

Azkuna Zentroko artista Az-Kide diren Ion Munduate, Elena Aitzkoa eta Miguel Garcíaekin.

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
MAI. 10 > IRA. 18

Isidoro Valcárcel Medina

Arquitecturas prematuras
(Arkitektura goiztiarrak)



@MUSAC

Maiatzaren 10ean **Isidoro Valcárcel Medina** artista eta arkitektoaren *Arquitecturas prematuras* erakusketa zabalduko da, Azkuna Zentroak eta MUSACek (Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoa) koproduzitua.

Arquitecturas prematuras urbanizatzeko eta eraikitzeko proposamenen bilduma bat da. Valcárcel Medinak egin zituen 1984 eta 1992 artean, artistaren hitzetan, «hiri-espazioko errealtate berehalakoaren eta ustez hura eratzten duten egituren artean dagoen erabateko kontraesana agerrarazteko» asmoz.

Lehen begiratuan, piezek arkitektura-planoak dirudite, dagozkien soluzio teknikoekin, garai hartan egiten ziren hainbat eraikinen antzekoak diren eskuz egindako marrazkiekin. Tituluak arretaz irakurtzen hasiz gero, ordea —*Torre para suicidas* (*Suizidentzako dorrea*), *Edificio para parados* (*Langabeentzako eraikina*), *Colonia de chabolas* (*Etxola saila*)... — antzematen da ez direla ohiko proiektuak, proposamen kontzeptualak edo eginezinak direla, ez eraiki ezin direlako, baizik eta bideragarriak izateko beste garai eta pentsamolde bat beharko lituzketelako.

Kristine Guzmánek komisariatutako erakusketa honetan, hogeita hamar proiektu inguru erakusten ditu; eta haietan Arte Plastikoen 2007ko Sari Nazionalak agerian jartzen du arkitekturak beste bizimodu batzuk edo espazioen beste erabilera batzuk proposatzeko duen gaitasuna, politikari eta gizarteari eragiten dieten eztabaidei bide emanez.

ISIDORO VALCÁRCEL MEDINA Arte Plastikoen Sari Nazionalaren irabazlea (2007) eta arte kontzeptualaren funtsezko figura da. Murtzian jaio zen 1937an, Madrilera joan zen bizitzera hemeretzi urte zituela, eta hor ikasi zituen Arkitektura eta Arte Ederrak. New Yorken egonaldi bat egin ondoren, 1968an harremanetan jarri zen minimalismoarekin, eta gero, environment eta performanceen bidez, lekuen eraikuntzarantz eboluzionatu zuen, eta Espainiako arte kontzeptualaren aitzindaria izan zen, Antoni Muntadas eta Francesc Torresekina batera. 1972tik aurrera, arte kontzeptualari buruzko Iruñeko Topaketetan parte hartu ondoren, batez ere hiri-guneetan egin zituen bere lanak.

Era kritikoan ikertu ditu bai artearen sistemaren ideiak eta konbentzioak, bai artearen eta pertsonen arteko harremanetakoak; horietan oinarritutako lan-egitura garatu du. Ia 50 urtean zehar, haren lana desmaterializazioraino eboluzionatuz joan da, eta horrek gehiago bideratu du artearen esperientzia haren objektibotasuna baino, artistak bizitza eta artea elkarri lotzeko duen gogoaz azpimarratuz.

////////////////////////////////////
Maiatzaren 10etik irailaren 18ra
Lantegia 2. BAT Espazioa

////////////////////////////////////
Erakusketa osatzeko, *Arquitecturas prematuras* argitalpena dago, Isidoro Valcárcel Medinaren hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak lehen aldiz eta osorik jasotzen dituen, bai eta artistak Ernst Neuferten El Arte de proyectar en Arquitectura lanari buruz egindako erreplikak ere.
Azkuna Zentroaren saltokia den dendAZ-en eta dendaz.azkunazentroa.eus webgunean dago salgai.
////////////////////////////////////